



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-04-17**

VIURTEA 1.410.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Hitzarmena sinatuko dute Amarozen paper fabrikan etxebizitzak egiteko

TOLOSA Datorren astelehenean sinatuko dute Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta Amarozen paper fabrikak

HELBURUA Paper fabrika eta langileen etorkizuna bermatu nahi dute; gehienez ere 292 etxebizitza eraikiko dituzte >4



Tolosaldeko Arraun Klubeko kirolariak pasa den larunbatean, Pasai San Pedron. HITZA

TAK-EKOENTZAT LAU DOMINA GIPUZKOAKOAN

TOLOSALDEA Pasa den larunbatean amaitu zuten txapelketa eta «gustura» daude; asteburu honetan Euskadikoari ekingo diote >2

Elebitasuna izango dute hizpide San Juan eskolan

ALEGIA Julio Ibarrek eta Iñaki Eizmendik zuzenduko dute hitzaldia, 19:00etan >6

'Liburuzaina, estu eta larri' txotxongiloen lana gaur liburutegian

LEITZA 6 urtetik gorako umeentzat gomendatuta dago; 18:00etan hasiko da >7

Saralegi eta Rekondo, etzi Aizkolari Txapelketan

LEITZA Amazabalen jokatu dute Urrezko Aizkolari Txapelketaren 5. jardunaldia, 19:30ean; Saralegi gazteen mailan eta Rekondo Urrezkoan >7

Katea Etxea Udalarik utziko dio Aldundiak 10 urterako >3

Euskal Herrikoan, emaitza onak lortu dituzte igerilariek

TOLOSALDEA IKTko kirolari batzuk Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu zuten >2



Tolosaldeko Arraun Klubeko neska arraunlariak atzean Gipuzkoako Batel Txapelketako bandera dutela. HITZA

Lau domina etxeratu dituzte TAKekoek Gipuzkoakoan

Arrauna » Txapelketako azken estropada jokatu zen asteburuan; Tolosaldeko Arraun Klubekoek emaitza onak lortu dituzte.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Batel Txapelketako azken estropada jokatu zen joan den larunbatean, Pasai San Pedroko uretan. Bertan izan ziren TAKeko arraunlariak, eta gogor saiatu ziren postu onean amaitzeko liga.

Norgehiagoka guztiak kontuan hartuta, ondorengo postuetan geratu dira eskualdekoak. Nesketan, infantil-kadete mailakoak laugarren geratu ziren. Seniorrak berriz, zilarrezko domina lepoan zutela etxeratu ziren Pasaiatik.

Mutilei dagokionean, hiru domina eskuratu zituzten. Kadeteen mailan, A taldekoek zilarrezkoa, eta Bkoek, brontzezkoa. Jubenilek ere brontzezko domina erdietsi zuten. Azkenik, infantilek sailkapeneko bosgarren postuan amaitu zuten txapelketa.

Igandeko jardunaldiak

Gipuzkoako ligan, denera 70 arraunlari gaztek hartu dute parte. Hala, larunbateko jardunaldia ona izan bazen ere, igandekoa ahazte-zina suertatu zen TAKekoentzat.

Infantil-kadete mailako neskek laugarren postuan geratu ziren, garaipenetik lau segundotara. Emendek taldea berriz seigarren iritsi zen helmugara. Infantil mutilen emaitzak berriz errepikatu egin ziren. TAK laugarren izan zen eta Emendek seigarren ailegatu zen.

» GIPUZKOAKO LIGAKO SAILKAPENA

- **Infantil-kadete neskek**, laugarren postua.
- **Infantil mutilak**, Bosgarren postua.
- **Kadete mutila, A taldea**, Zilarrezko domina.
- **Kadete mutila, B taldea**, Brontzezko domina.
- **Senior neskek**, Zilarrezko domina.
- **Jubenil mutilak**, Brontzezko domina.

Kadeteetan, eskualdeko mutilek lehenengo txandan hartu zuten parte eta urrea nahiz ikurrina lortu zituzten. Emendek bosgarren izan ziren, brontzetik bigesegundotara. Irabazleak ondorengo arraunlariak izan ziren: Marko Alijoste, Beñat Larrauri, Joseba Lasa, Jon Gago eta Fermin Kamínos patroia.

Senior neskek garaile izan ziren ikurrina eta urrea eskuratzuz. Bertan parte hartu zutenak hauek izan ziren: Ixiar Saizar, Amaia Doyague, Maialen Azaldeg, Ainhoa Lopez eta Irati Ozaita, patroibezala. Jubenil mutilak ere ongi aritu ziren, eta brontzezko domina etxeratu zuten. Azkenik, seniorrek, beraien tanda irabazi zuten, baina laugarren geratu ziren, Koxtape, Orío eta Zarautzen atzetik.

Euskadikoari begira

Gipuzkoako Txapelketaren ondoren, Euskadikoa dator. Honenbestez, asteburu honetan berriro Pasai San Pedron izango dira estropadak. Euskadiko Txapelketako lehen jardunaldia larunbatean 17:00etan izango da. Hurrengoa berriz, igandean, 11:00etan.

Apirila Gorrian, Venezuelako prozesu iraultzailea da bihar hizketagai

ERREDAKZIOA

Sanblasipiko gazte asanbladak antolatutako Apirila Gorriaren baitan, «Errepresioaren aurka, askapen nazionalaren eta sozialismoaren aldeko (Euskal Herria Sozialista eta Boltzaren eskutik) eta apirilaren 11n Palestinako gatazkari buruzko (Komite Internazionalistak-en eskutik)» hitzaldiak eman ondoren, bihar hirugarren saioa izango da. Hemen, Venezuelako prozesu iraultzailea izango da mintzagai, Euskal Herria Sozialista aldizkariaren eskutik.

Saioa, Apirila Gorriko hitzaldi guztiak bezala, Otsabi elkartean izango da, 19:30ean. Apirila Gorriarekin «borrokana ari diren herrialdeei elkartasuna luzatzea» da xedea, eta aldi berean, «Tolosaldeko gazteriarri ikuspegi kritikoa bat eskaintzea».

Hurrengo hitzaldia apirilaren 25an izango da eta Kuba izango da mintzagai, Euskadi-Cuba elkartasun plataformaren eskutik.

☑ Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alikza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Igerilari onenak Usabalen izan dira

Igeriketa » Euskal Herriko Txapelketa jokatu zen joan den asteburuan; eskualdeko igerilariak marka onak lortu dituzte.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko igerilari onenatariko batzuk Tolosan izan ziren aurreko asteburuan. Izan ere, junior mailakoan, etorkizunekoan eta igeriketa absolutukoan Euskal Herriko Txapelketa jokatu zen Usabal kiroldegian.

Ekitaldia Tolosaldea IKTKoek antolatu zuten, eta goi mailako igerilariak erakutsitako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izan zen. Asteburuan parte hartu zuten igerilarien helburu nagusia Espainiako Txapelketarako sailkatzea zen. Horretarako, marka oso onak egin behar zituzte, eta askok lortu zituzten prestakuntzan egindako lanari esker.



Euskal Herriko Igeriketa Txapelketan izan ziren ere IKT-koak. HITZA

Txapelketan egindako lanarengatik nabarmendu beharreko igerilariak ondorengoak dira: hasteko, Jon Andreu azkoitiarra, Euskal Herriko errekorra bi aldiz gainditu zuen. Alde batetik 50 metro bizkarrez proban 26 segundo eta 14 ehuneneko egin zituen. 100 metro bizkarrez proban berriz, 56 segundo eta 65 ehuneneko. Oso marka onak

lortu zituen beste igerilarietako bat Iruñeko Javier Urtasun izan zen.

Etxeo igerilariari dagokionean, hauek ere ongi aritu ziren eta zitutzen helburuetako asko lortu zituzten. Junior mailako nesken taldeak Espainiako gutxieneko denbora lortu zuen erreleboetan, 4x100 metroko estiloan. Txapel-

keta hau Xixonen jokatu da. Erreleboa ondorengo igerilariak osatu dute: Leire Muñagorri, bizkarrez; Eneka Muñagorri bular igeriketan; Joana Cuadrado tximeleta estiloan eta azkenik, Itziar Oteiza, crawllean.

Banakakoek ere gutxieneko gehiago lortu zituzten eskualdeko igerilariak. Josu Carrerak Espainiako gutxiengo marka lortu zuen 400 metroko estiloan, 4 minutu eta 53 segundoko denborarekin. 200 metro bizkarrez proban, 2 minutu eta 15 segundoko denborarekin sailkatzea lortu zuen Aitor Leikuona. 200 metro baino, librekoan, Eneka Muñagorri ere Espainiakoetarako txartela lortu zuen. Aipatu beharrekoa den beste eskualdeko igerilari Jon Azpiazu da. Hau Madrilaren aritu da entrenatzen denboraldi batez. Eta eginak lana asteburukoan ikusi zen, 24 segundo eta 22 ehuneneko denbora egin baitzuen 50 metro libreetan.

Katea Etxea hamar urterako Udalari uzteko erabakia hartu du Foru Aldundiak

Villabona » Eraikin horretan Udalak gazteria eta kultura arloekin zerikusia duen zerbitzua eskaini beharko du.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du Katea Etxea dohainik uztea Villabonako Udalari hamar urterako, gazteria eta kultura arloekin zerikusia duten udal zerbitzuak eskaintzeko. Kale Nagusian dagoen higiezinaren behe eta lehen solairuaren lagapenak aukera emango dio Udalari aipatutako zerbitzuetarako behar diren azpiegiturak edukitzeko. Arantza Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak eta Maixabel Arrieta Villabonako alkateak laster sinatuko dute lagapen kontratua.

Foru erabakiak Udalaren eskaera berriari erantzuten dio eta jarrapena ematen dio 1991ko aperi-

leko aurreko erabaki bati, azken erabaki horren bitartez etxea laga baitzitzaien Udalari haur eskola gisa erabiltzeko. Aurtengo ikasturtean Urdapilleta Etxeak ematen du haur eskola zerbitzua eta, beraz, Katea Etxean hutsik edo zerbitzurik gabe gelditu da.

Nerabeentzako Gazte Leku

Udalak «begi onez» hartu du erabaki hau. «Azpiegitura eta ekipamendu aldetik justu xamar gabil-tzanez, ondo etorriko baitzaio herriari eraikin hau erabiltzeko aukera edukitzea», zehaztu dute udal gobernunik. Iazko abenduan Villabonako alkateak bilera bat burutu zuen Foru Aldundiarekin eta bertan Villabonak eraikin horren beharra zuela argudiatu zuen. «Urtarrilean idatziz bideratu zen eskaera, eta orain lehen erantzun hau iritsi zaigu», azaldu du Udalak.

Foru Aldundiak ipini dituen baldintzen artean eraikin horretan eskaintzen den zerbitzuak kultura edo gazteria sailekin zerikusia

eduki beharko duela, eta gainera, udal langileen edota kontratatzen den enpresako langileen ikuska-pena beharko duela izan uneoro. Gauzak horrela, udal gobernua buruan duen ideia Katea Etxea nerabeentzako Gazte Leku gisa erabiltzearena da. «12-16 urte arteko gazteentzat kokaleku ezin hobean dagoela iruditzen zaigu, eta bestalde eraikina bera ere oso aproposa da horretarako, oso zatitua dagoelako, gela eta txoko ezberdinak sortzeko aukerarekin, bi terraza ditu gainera...», esan dute Udale-tik.

Proiektua egin aurretik nolabaiteko ideia edo programa bat osatu behar dela diote Udaletik, «zernolako zerbitzua eskaini nahi den zehazteko». Horregatik, programa horren osaketan inork parte hartu nahi badu, Udaleko kultura sailera zuzentzeko aukera guttiz zabalik dagoela azaldu dute. «Are gehiago, asko eskertuko genuke, oraindik zirrriborrorik ere ez baita osatu», azaldu du Udalak.



'Gaurko menua' obraren une bat. HITZA

'Gaurko menua' lana, bihar Gurea aretoan

ERREDAKZIOA

Komedia gazi-gozo bat ikusteko aukera izango dute antzerkizaleek bihar Gurea aretoan. Dar-Dar produktzioak taldearen *Gaurko menua* antzezlan 22:00etan emango dute. Sarrerak 8 euro balio ditu, 6 euro gazte txartelarekin. Pako Monteszen zuzendaritzapean ariko dira Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo aktore ezagunak.

Orain gutxi Tolosan izan zuten emanaldia eta «oso gustura» azaldu dira antzerki taldekoak izandako emaitzarekin. «Nahiko ikus-

entzule izan ziren. Obra, orokorrean, ondo funtzionatzen ari da».

Gizarteko gaiak umorearekin

Bi sukaldari dira antzezlan hone-tako protagonistak. Sukalde koi-petsu batean, Pepiketa Txelokirri-far eta negar artean bere atsekabe eta itxaropen ezak elkarbanatuko dituzte. Bata senarrak gaizki trata-tzen du eta besteak ama posesiboa du. Bi emakume sukaldari horien bizitza azalarazten joango da eta horrekin batera gizartearen dauden zenbait arazo ere.

Iruran, bi lanpostu betetzeko deialdia

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak gizarte dinamiza-tzaile bat eta kultur laguntzaile bat aldi baterako kontratatzeko deial-dia egin du. Interesatuak bihar dute azken eguna eskaerak aur-kezteko. Udal bulegoetan egin be-harko dute, bulego orduetan.

Eskaera egiterakoan curriculu-ma eta telefono zenbakia utzi be-harko dute. Eskaera egiten dutenei hilaren 21erako deituko zaie elka-rrizketa bat egiteko.

Gizarte dinamizatzaile bi hila-betez ariko da. Arratsaldean ariko-litzateke; ostiraletan liburutegian eta ludotekan egongo litzateke; as-teartetan eta ostegunetan Zahar-rren Biltokian tailerrak gauzatzen ariko litzateke eta astelehen eta as-tazkenetan tailerrak antolatzen ariko litzateke. Kultur laguntzaile hilabetez ariko litzateke eta bere lana Gaztelekuaren hezitzaile bezala egotea izango litzateke, bi orduz arratsaldean.



Katea Etxea egun zerbitzurik gabe dago. I. GARCIA

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

JESUS BEOBIDE GALARZA

Jauna
Atzo hil zen, 66 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-

Haren emaztea: M^h Karmen Aranguren; seme-alabak: Josu eta Pilare Lazkano, Eli eta Juan M^h Plazaola, Gorka eta Oihana Zuazolazigorraga; bilobak: Nahia, Mikel eta Larrait; anai-arrebak: Xanti eta Olatz Aizpuru, Inazita (f) eta Margarita Azpeitia, Krux M^h eta Begoña Oteiza, Inazita eta Imanol Urbieta, eta Aranba eta Jose Luis Mangas; ezkon anai-arrebak: Juan Aranguren, Luis (f) eta M^h Pilar Aranzabal, M^h Krux eta Juan Subinas, Ifaki (Marista), eta Karmelo eta Kontxita Urbieta; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Azpeitiko Soreasuko Sebastian Deunaren parrokiaren elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara.

Helbidea: Erdi Kale 11-5-etz.

Oharra: Hilbeila Azpeitiko Carmona ehorketaren tanatorioan egongo da



AZPEITIAN
2008ko apirilaren
17an




hitza

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!



**Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.**



Harpidedunentzat

%25
merkeago



Amaroz paper fabrika dagoen lekuan etxebizitzak egiteko hitzarmena sinatuko dute astelehenean. E. EZEIZA

Amaroz paper fabrikaren etxebizitzak egiteko hitzarmena sinatuko dute

Ekonomia » Gehienez ere 292 etxebizitza egingo dituzte bertan; datorren astelehenean, sinatuko dute hitzarmena.

INIGO TERRADILLOS

«Amaroz paper fabrikaren eta bertako langileen etorkizuna bermatzea» helburu duen hitzarmen instituzionala sinatuko dute datorren astelehenean. Hitzarmen horren bitartez, enpresak egun okupatzen dituen terrenoak birkalifikatu egingo dituzte, bertan gehienez ere 292 etxebizitza eraikiz eta enpresa beraren leku aldaketa bideragarri egingez.

Tolosako udaletxeko batzar aretoan sinatuko dute hirigintza hitzarmena. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Amaroz paper fabrikako finantza zuzendaria eta administrazio kontseiluko kidea den Jaime Permisane, Arantza Tapia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Ordenamendu diputatuak, Eusko Jaurlaritzaren Teknologia eta Industria Garapenaren kontseilariordeak, Jose Ignacio Telletxeak eta Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Sailaren kontseilariak. Ekitaldia datorren astelehenean izango da, hilaren 21ean, 10:00etan.

Fabrikaren eta langileen etorkizuna bermatu

Hirigintza hitzarmen honekin Amaroz paper fabrikaren eta bertako langileen etorkizuna ahalbidetzea lortu nahi dute. Izan ere, egun 130 langile lanean ari diren Tolosako enpresak ekonomikoki bideragarritasun arazoak ditu, «egoera zailean dago». Paperaren industria ez dago egoerarik onenean, eta Amaroz paper fabrikaren kasuan, gainera, ez da lehiakorra beste enpresekiko.

Hala, egoera honi buelta eman asmoz, aukera bat sortu zitzaion paper fabrikari. Egundokupatzen dituen terrenoak birkalifikatu egingo dituzte, eta gero lur horietan etxebizitzak egingo lituzkete. Operazio honen bidez paper fabrikak lortzen duenarekin Legorretako Paperalia enpresaren instalazioak eta makinak erosteko asmoa du, bertan bere jarduerarekin jarraitzeko.

Legorretako enpresa likidazioan dago une honetan. Hain zuzen ere, hil honen 24ean egingo dute enpresaren enkantea. Hor lortuko luke Amaroz enpresak Legorretako Paperaliaren jabetza, Tolosako terrenoen birkalifikazioarekin eta erakundeen diru laguntzekin (Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren Gauzatu programak emandakoa izan daiteke, inbertsioak egiten dituzten enpresei bi-

deratutakoak izaten baitira) jasotakoa baliatuz.

Tolosatik Legorretara igarota sektorearen gainerako enpresekin lehiakorra izateko nahi du Amarozek. Ekoizpena handitzea espero dute, eta horretarako langile gehiago beharko lituzkete ere aurreikusitakoak. 2007an 43.000 tonelada izan zen bere ekoizpena, eta hortik %47a esportatzen du; 35 milioi euro inguruko irabaziak ditu 143 urte dituen enpresa honek.

Etxebizitza libreak eta babesekoak

Amaroz paper fabrikak bere lur-eremua birkalifikatu eta gero, Orubide izango da lur horiek erosiko dituen. Visesa lur publikoaren sustatzailea eta hainbat kutxa batzen ditu Orubidek, zorua bilatzeaz arduratzen den sozietateak. Hirigintza hitzarmena sinatu ostean, gehienez ere 292 etxebizitza eraikitzeko aukera egongo litzateke paper fabrikaren egungo lur-eremuan. Etxebizitza horiek libreak eta babesekoak izango dira, baina oraindik zehazteko dago zenbat izango diren babesekoak, eta babesekoetatik zenbat izango diren babes ofizialekoak, eta zenbat tasatuak. Datorren astelehenean Tolosako udaletxean izango den ekitaldian zehaztuko dute horien kopurua.

Laburrak

Tolosa Kup txapelketan izen-ematea

TOLOSA ● Tolosa Kup txapelketan izena eman nahi duten taldeek hilaren 21era arte izango dute horretarako aukera. Antolatzaileek azaldu dutenez, epez kanpo aurkezten direnak ez dira onartuko. 75 euro ordaindu beharko dira, eta diru-sartzea egitean taldearen izena eta ondoren Tolosa Kup jarri beharko da. Diru-sartzea egiteko inprimakia Gazte informazio bulegoan eskuratu ahaliko da. Txapelketaren zozketa hilaren 22an izango da, 18:00etan, Kultur Etxean, eta hilaren 26an hasiko dira partidak. Hauek larunbata eta igande arratsaldetan jokatuko dira.

San Joan jaiak antolatzeko bilera, bihar, Kultur Etxean

TOLOSA ● Herriko jaiak gerturatzeko ari dira, eta festetako egitaraua ere prestatzen ari dira antolatzaileak. Hain zuzen ere, horretarako, San Joan jaiak guztien artean antolatzeko Jai Batzordeak bilerara deitu du. Bilerak bihar izango, 19:00etan hasita, Kultur Etxean. Bertaratzeko deia egiten diete Jai Batzordeak parte hartu nahi duten herritarrei.

'El silencio antes de Bach' filma gaur ikusgai

TOLOSA ● Ohikoa den moduan zine forum saioa izango da gaur Leidor aretoan. Pere Portabella zuzendariaren *El silencio antes de Bach* filma izango da ikusgai. Lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Orientazioari buruzko hitzaldia, astelehenean

TOLOSA ● DBHko laugarren mailako gurasoei zuzenduta datorren astelehenean, hilaren 21ean, hitzaldia egongo da Orixe Institutuan. Hain zuzen ere, Alberto Ariño orientatzailearekin ordubeteko hitzaldi informatiboa izango da entzungai Batxillergo eta Heziketa zikloei buruzkoa. Hitzaldia 19:00etan izango da, Gorosabel eraikinean.

Atapuerca irteera antolatu du Harizpek

TOLOSA ● Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du Atapuerca maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro ordaindu beharko dute bazkide ez direnek) ordaindu beharko dute, eta azken eguna maiatzaren 12a izango da. Maiatzaren 13an 08:00etan izango da irteera San Frantziskotik. Ibeas de Juarros-era iritsiko dira, eta handik Atapuerca parkea eta aztarnategia bisitatu dute. Bazkaria Comosapien jatetxean egingo dute. Bazkariaren ostean, Burgosera joango dira hiria bisitatzera.

Bordondantza entsegua gaur, Usabal kiroldegian

TOLOSA ● Udaberri dantza taldeak antolatutako gaur izango da San Joan jaietarako Bordondantzarako entsegua, ostegunero egiten duten bezala. Usabal kiroldegian izango da entsegua, 20:30etik aurrera.

Merkataritza ekipamenduei zuzenduriko laguntzak

Gizartea » 30.000 euroko inbertsioa egin behar dutenei ere diru laguntzak emango dizkie Eusko Jaurlaritzak.

ERREDAKZIOA

Ordizian dagoen Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegotik, Eusko Jaurlaritzak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Merkataritza ekipamenduen modernizaziorako laguntzak argitaratu berri dituela jakinarazi nahi dute. Laguntza horien bidez, 2007. urteko urriaren hirutik aurrera egindako zenbait aktiboen (ordenagailuak, kutxa erregistratzaileak, hotz-kamerak, eta abar) erosketan diruz lagunduko dutela azaldu dute.

Bestalde, aurten, beraien dendetan gutxinez 30.000 euroko inbertsioa egin behar duten merkatariei zuzenduta dauden Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak laster argitaratuko direla ere adierazi dute Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegotik. Laguntza horien bidez, maileguren interesen zati bat finantziatuko dute.

Diru laguntza hauek eskatzeko zenbait baldintza bete behar dituzte eskatzaileek, eta epe batzuk ere zehaztuko dituzte.

Diru dela eta, azken aldiaren inbertsioaren bat egin duten edo laster egitekotan dauden eta diru laguntza hauei buruz informazio gehiago jaso nahi dutenek, 943 16 06 73 edota 943 67 52 24 telefono zenbakietara deitu besterik ez dute eta zalantzak argituko zaizkiela zehaztu dute.

TB Digitala 70

Hemen da Euskaltelen TB Digital berria

Azkenean, telebista hobea, denontzat.

70 kanalik onenak,
hilean **14,1 €** bakarrik ordainduta

Berria. Eskatzailea. Purta-purtaiko berriak, zinema, kirolak, musika, haurrentzako saioak... eta 25 kanal berri. Inoiz ez da egin hain telebista onik, eta hain merke ere. Aurreratu zurea, Euskalteleni bakarrik.

zurtzOptikoa

Deitu **1717**ra, edo zure Euskaltelen saltokira.

TB Digitala orain onartutako kudeak: 20 € + % zortzi diruarekin egiten da. Denegua + 11 edo horik gehiago erabiltzean kudeak, eta % zortzi diruarekin TB Digitala 70 edo horik gehiago erabiltzean kudeak, eta zortzi diruarekin TB Digitala 70 edo horik gehiago erabiltzean kudeak. Hori dela eta, TB Digitala 70 erabiltzean kudeak 14,1 € hileko kudeak dira. Denegua + 11 edo horik gehiago erabiltzean kudeak, eta zortzi diruarekin TB Digitala 70 erabiltzean kudeak 14,1 € hileko kudeak dira. Hori dela eta, TB Digitala 70 erabiltzean kudeak 14,1 € hileko kudeak dira. Hori dela eta, TB Digitala 70 erabiltzean kudeak 14,1 € hileko kudeak dira.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak daude banda zabala jartzeko

Amezketak » Wimax telefonia teknologiararen bidez eduki ahal izango da. Logikalinera deituz egin behar da eskaera.

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak jakinarazi nahi izan du Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak ematen ari dela, banda zabala eta wimax telefonia teknologiararen bidez eduki ahal izateko. Une honetan aparatuek eta instalazioak ehuneko ehuneko subentzionatuta daude. Espedienteak tramitatzen ari dira eta jakinarazi dute laguntzak jaso nahi dituen edonork eskaerak egin ditzakeela, udalerrian seinalea iristen den eremuan bizi bada betiere.

Horretarako, Igone edo Lurdesekin jarri behar da harremanetan (Logikaline) enpresakoak) asteartea baino lehen: 943 31 86 09.

Dena den, wimax seinalea hartzen den guneetan herritarrek arazoak baldin baditu, ahal den garbierak adierazi behar zaio Udalariei arazoa zeren eratakoa den.

Datorren astean Amezketako Udaleko batzordeak bilduko dira

ERREDAKZIOA

Datorren astean zehar Amezketako Udaleko batzordeak bilduko dira. Bilera hauek irekiak dira, herritarrek joateko aukera izanik. Kultura batzordeak asteartean bilduko dira, 20:30ean balio-nitzeko gelan. Gaien artean, Amezketako udaleko irekiak (lehen zirriborroa), Kultura Batzordearen funtzionamendua (dinamika hobetzeko proposamenak mahairatu) eta Amezketako historiari buruzko liburuxka daude.

Gizarte, ongizate eta ingurumena batzordea asteazkenean bilduko da. Haur eskolako jolastokiak, herriarentzako ur kudeaketa egokienaz, Osasun Zentruko kekezetan eta pistetaz ariko dira.

Gaur zortzi, hirigintzakoena

Hirigintza-obretarako batzorde bilera ostegunean izango da. Bertan, Larraitz Bideko etxebizitzak, arau berriak ezarriko dituzte txikiak egiteko proposamena, Ergoneko frontoia bezalako gaiak jorratuko dituzte besteak beste.

Soka motzean

«Leitzaundi fama daukagu baina denetik dago herrian»

UNAI ZABALETA »

Arrain-saltzailea

NEREA URBIZU

Leitzar peto-petoa (1976) da Unai Zabaleta.

Bisitatu beharreko txoko bat?

Edozein, konpainia onarekin.

Zer du Leitza beste herriek ez dutenik?

Herri bat da, eta denok ezagutzen dugu elkar.

Leitza uzteak zer suposatzen ditu?

Harreman berriak egitea. Gehiago ireki behar izatea.

Baina merezi izan du?

Bai, noski. Baina ez dut Leitza utzi! Lanarengatik mugitu gara.

Leitzaren ondoren zein leku?

Euskal Herriko leku asko dira gomendagarriak.

Leitzalarrea ala Aralar?

Leitzalarrea.

Urteko egunik politena?

Festa bezpera, abuztuaren 10ean, santiburtzioetan.

Zabaleta, Sagastibeltza... Zure lehen 6 abizenak?

Zabaleta, Zelaieta, Garin, Oskoz, Arribillaga, Arretxea. Ama Oronozkoa da.

Antsoainen leitzarra eta Leitza antsoaindarra?

Hala da. Antsoaindar baino, iruindarra esaten didate. Irur-tzundik aurrera dena Iruinea da guretzat.

Leitzarrak Leitzaundiak: egia al da hori?

Pixka bat... Fama bada, baina denetik egonen da, leku guztietan bezala.



HITZA

Zurea da hitza



Txintxarimedia osatu dute alegiarrek

TONTOKALETIK

Indarrean gaude, bai horixe! Txintxarri sfera aurrera doa eta egindako azken ekarpena txintxarriMEDIAn izan da: sare sozial bat da. Hau grafo(en) bidez adieraz daiteke; bertan, irudian ikus daitekeen bezala, nodoek pertsonak adierazten dituzte eta nodoen arteko lerroek beraien arteko erlazioak.

TxintxarriMEDIAn gauzatzeko, Txarlikningizeneko on-line plataforma erabili du. Sare sozialak sortzeko badira hainbat erraminta

ezagun, besteak beste MySpace eta Facebook.

TxintxarriMEDIAn edozein erabiltzailek gehitu ditzake argazkiak, bideoak eta audioak. Agenda bat ere badu. Edonork parte har dezake txintxarriMEDIAn, bere erabiltzaile kontua erregistratuz. Ea denon artean mediateka kuriosoa bat sortzeko gai garen.

Oharra: Informazio guztia <http://tontokaletik.blogspot.com/2008/04/15/txintxarimedia-sortu-da/-en> dago eskuragarri.

Seme-alabak euskaraz bizi daitezten, hitzaldia dago gaur eskolan, euskaraz

Alegia » Elebitasuna jorratzen duen hitzaldi interesgarria Julio Ibarrekin eta Iñaki Eizmendirekin izango da.

NEREA URBIZU

Nola lagundu nire seme-alabei euskaraz bizi daitezen? hitzaldia gaur izango da Alegiko San Juan eskolan. San Juan eskolako guraso elkarteak eta eskolak berak antolatuko dute. Laguntzailea, berriz, Alegiko Udala izan da. 19:00etan izango da

elebitasunaren inguruko hitzaldi interesgarri hau eskolan. Euskaraz, eta euskara ongi menperatu baina gazteak bere lekua ere baduela kontuan hartuta izango da.

Hizlari gisa, Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendi etorriko dira gaur; lehenengo kazetari eta guraso bezala ariko da, eta bigarrena, gizarte hezitzailea da eta euskara bultzatzen esperientzia handia dauka. Euskara eta gazteak erabiltzen ditugu gehienbat, eta gurasoek galdere asko daukate honen aurrean, kasu askotan gurasoek ez baituzte bi hizkuntzak guztiz menper-

ratzen. Errealitatean ematen diren egoera arruntenetatik abiatuko dira, beraz, eta hainbat zalantza argitu dituzte honen inguruan.

Jantziak dira bi hizlariak, eta jendea erakartzen dutenak. Barrea eta interesa pizten dituzte. Bestalde, haurtzaindegia zerbait egingo da: beraz, gurasoek haurrak han utzi ditzakete hezitzaileen arretapean.

Familiatako egoera arruntez

Elebitasuna jorratuko dute kasu hauek gehienbat landuz: seme-alabek lagunekin euskaraz egin dute beti, baina gaztelan irakurtzen joera somatzen zaionean zer egin; seme-alabekin zein hizkuntzatan hitz egin gurasoetako batek euskara ezagutzen ez duenean; zein eragin izan dezakeen gurasoen artean gaztelan hitz egiteak, haurrak euskaldunak direnean; gurasoen hankasartzeak haurrak zuzentzen dituzten zein jarrera hartu...

Interesgarria eta barregarria

Aurreko asteazkenean gazteak egin zuten hitzaldia, eta erantzun handia izan ez bazuen ere, joandakoek asko ikasi zuten, eta barrea ere egin zuten.

GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (ERREFERENTZIA: EE08-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Giza Baliabideak sailean lan egingo du, eta taldeko langileen administrazioaz eta giza baliabideen kudeaketaz arduratuko da.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza izatea.
- EGA edo balioidea izatea.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia izatea (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza...).
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Kontuan hartuko da giza baliabideak kudeatzeko programa informatikoak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Iraupen luzeko kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hastea.

Bidali Curriculum Vitae zehatza, apirilaren 22a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatza.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNTZEN DUTAKO HEDABIDEA



Jon Rekondo eta Joseba Otaegi, Urrezko Aizkolari Txapelketan. I. GARCIA

Etzi, Amazabalen, Urrezko Aizkolari Txapelketa

Leitza » Bosgarren kanporaketa izanen da eta Ruben Saralegi eta Jon Rekondo maila ezberdinetan ariko dira.

NAIARA GARCIA

Larunbatean 19:30ean Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketaren bosgarren jardunaldia egingen dute Leitzako Amazabal pilotalekuan. Bertan, gazteen mailan Ander Erasun iturendarra eta Ruben Saralegi leitzarra lehiatuko dira. Urrezko Mailan, aldiz, Arria V.a Lasaren aurka ariko da eta Rekondo leitzarra Atutxa bizkaitarraren aurka. Mikel Zabaleta eta Iker Vicente ere egur bana mozten jarriko dituzte.

Txapelketa martxoaren 16an hasi zen Beran eta Gabriel Saralegi herri kirol jaialdietako antolatzaileak azkeneko jardunaldiaren nondik norakoak kontatu ditu. «Joan den asteburuan jokatzeko zuten Sunbillan Lasak eta Mugerrak eta Lasak irabazi zionez hau pasatu zen aurrera. Orain Xabier Orbegozo Arria V.aren aurka aritzea tokatzen zaio. Bestalde, joan den asteburuan ere Atutxari Peña-garikanoren jokatzeko tokatzen ziztaion, baina hau erretiratu zenez, Atutxa pasatu zen aurrera eta Rekondorekin jokatzeko tokatzen zaio etzi».

Final-laurdenak oraindik urrun samar daude, Saralegi azaldu duenez. «Lau garren kokxa pasatu dute, orain bosgarrena jokatu dute larunbatean. Gero beste bat dago Arria-Lasa eta Atutxa-Re-

kondoren arteko irabaztunek jokatu dutena, eta gero jada Nazabal, Olasagasti eta horiekin sartuko dira. Horiek final-laurdenak izanen dira».

Martxoaren 16an hasi zirenean lehendabiziko sailean jokatu zutenak 18 izan ziren. Hasieran 36 ziren, eta lehendabiziko asteburuko saioetan horiek denek jokatu zuten. «Hortik aurreratzen joan dira», dio Saralegik, «eta eroriz eroriz gutxiago gelditzen dira, eta aurrera jarraitzen dutenak, larunbatean jokatu dutenez gain, Lopez Azpilikueta eta Etxeberria dira. Etxeberria igandean Sunbillan Txapartegi irabazi zion, eta orduan Etxeberria Lopez Azpilikuetaekin jokatu du, eta Vicente irabazi zion Mindegia eta Azurmendirekin jokatu du». Hauek datorren igandean ariko dira, Lezaunen. Beraz, asteburu honetan bi jardunaldi izan dira, txapelketa beraren barruan.

Euskal Herri mailako lehiaketa

Aizkolarien arteko txapelketa normala Euskal Herri mailan egingen dira, baina badira 2 aizkolari Segoviatik etortzen direnak, aita-semeak. Gabriel Saralegi haien berri badaki. «Beraiek interesa erakutsi zuten hemengoan artean jokatzeko ikasi nahi zutela, eta Urrezko Aizkolan parte hartu nahi zutela. Han beti pinuan jokatzeko dute, edo makalean, baina hemen pagona jokatzeko da eta horretan ikasi nahi zuten. Aita lehendabiziko kanporaketan pasa egin zen aurrera, gero hurrengoan erori egin zen eta semeak dauzka bat galduta eta beste bat irabazita. Se-

meak 18 urtetik beharkeotan jokatzeko du».

Egin beharreko lana

Gazteek 18 urtez azpikoak ebakiko dute zutik oinbeteko bat, 36 ontza, alegia, elkarren kontra, gero etzanda 45 ontzako bat eta gero beste saio batean bina kana erdiko.

Nagusiek daukate lehendabiziko kolpeka 45 ontzako bat, gero erlojuaren kontra 45 ontzako bat, gero zutik elkarren kontra kana erdiko bat eta gero etzandakoan bi kana erdiko eta bi 60 ontzako segidan.

Rekondo larunbatean sartuko da txapelketan, lehengo urtean 8 oneneta iritsi zelako. «Lehengo urtean behereko puntatik hasi zen eta pasatuz pasatuz joan zen eta 8 oneneta iritsi zen», dio Saralegik. Atutxak, berriz, 3 kanporaketa igaratu ditu, bi irabazita eta bestean aurkaria erretiratu egin zen. Lasak 2 kanporaketa pasatu ditu.

Eta beste multzoetan daudenei dagokienez, Mindegia aurreko igandean erori zen Sunbillan, baina pasa zituen 4 kanporaketa, eta Etxeberria ere 4 kanporaketa pasa ditu. Kasu honetan, nahiz Etxeberria nahiz Mindegia behereko puntatik hasi ziren, eta Etxeberria oraindik aurrera jarraitzen du.

Saioa

Luis Mari Bengoa izango da aurkezlea, Egursport-eko nagusia eta saioak txandaka jokatu dituzte, lehendabiziko saio bat egingen dute, gero gazteek, gero berriro nagusiek... Azkeneko mementora arte ez da jakinen zeintzuk saikatu diren.

'Liburuzaina, estu eta larri' txotxongiloen lana gaur liburutegian

Antzerkia » 6 urtetik gorako umeentzat gomendatuta dago gaur 18:00etan eskainiko duten emanaldia.

N. GARCIA

Gaur, 18:00etan, *Liburuzaina, estu eta larri* txotxongilo lana eskainiko dute Leitzako Herri Liburutegian. Umeei zuzenduta dagoen lan hau 6 urtetik gorako umeentzat gomendatuta dago.



Herri Liburutegian izanen da. N. GARCIA

Herri Liburutegira joan beharko dute.

Hainbat emanaldi

Gus marionetas taldearen lan honetarako Euskal Herriko hainbat leku bisitatu ditu, eta off-eko ahotsak Fernando Arregik eta Susana Pellicerrek jarriko dituzte.



Galtzada-harriak konpontzen

LEITZA • Alde Zaharreko galtzada-harriak konpontzen ari dira. Udal langileek azaldu dutenez, tarteka egingen duten lan bat da hau, beste zenbait lanekin tartekatzen dute, beraz. Duela 20 egun inguru Malesakenea ondoko txoko bat konpondu zuten eta atzo plazaren atzealdean aritu ziren lanean: aurrena altxatu egin zituzten eta gero masarekin jarri. N. GARCIA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Telefono zenbakia: 665 70 86 35.

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuta daudenei deitu dezatela 685 22 70 58 telefono zenbakira.

Beti alai
jateko

**Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia**

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



14°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Zizurkil.** Pedro Maria Otaño herri eskolako ikasleek *Antxumeak eta otsoa* eta *Ez zait gustatzen nire alabaren nobioa* antzezlanak eskainiko dituzte 15:30ean Atxulondo kultur etxean.

Hitzaldia

■ **Villabona.** Jose Maria Avilaren *Urteen bakardadea: aholkuak eta prebentzioa* hitzaldia Biltoki jubilatutako elkartean 17:00etan.
■ **Tolosa.** Naturaldia jardunaldiak: *Bioerregiak: ekologikoak?* hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan, Juan Lopez de Uralde Greenpeaceko zuzendari exekutibo eta Carlos A. Fernandez IDAEko bioerregi sailleko buruarekin.

Zinema

■ **Tolosa.** Pere Portabellaren *El silencio antes de Bach* filma (JBA) emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean. Estreinaldia Euskadin.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-ko txartelak, Bizi nahi elkartean 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
■ **Tolosa.** Hilaren 28, 29 eta 30ean 10:00etatik 14:30era ziklomotoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858 zenbakian).
■ **Tolosa.** Miguel Soroa pilotaria zenari omenaldia: 19:30ean Jesuitinetako kaperan meza, 21:00ean afora Fronton jatetxean, afalondor kantua, txistulariak, bertsoak, soinua... Afarirako izen-ematea, Frontonen (943 65 29 41).
■ **Tolosalea.** HABEren *Egonaldiak familia euskaldunetan* egitasmorako familiak behar dira uztailean, abuztuan edo irailean. Hilabete bakoitzeko, familiari 650 euro ordainduko dira. Informazio gehiago euskara zerbitzuetan, 943 474447 (Urrats euskaltegia) telefonoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Oria eta Zelaiko lanak abiarazi dituzte

TOLOSA • Uraren kalitatea hobetzeko helburuarekin, Oria eta Zelaiko kolektorearen lanei ekin diete Ura uraren agintziak eta Tolosako Udalak (irudian Geltoki eta Araba etorkibed inguruan). Bi urte inguru iraungo dute lanek eta, pasa den astean, Udaletik azpimarratu nahi izan zutenez,

«epe honetan eragozpenak handiak izango diren arren etorkizuneari onura handiak ekarriko ditu». Txandaka egingo dituzte lanak, 16 zonalde-tan. Hala, ur zikinek ez botatzeko sistema jarriko dute martxan, baita sa-neamendu sistema hobtu ere. IMANOL GARCIA

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa